



Laneko arriskuen prebentzioari buruzko **ONARRIZKO MAILAKO** prestakuntza, 50 ordukoa, laneko arriskuen prebentzioa eguneroko kudeaketan integratzera bideratua eta Aginte Lerroari zuzendua

Modalitate mistoa (20 presentziala eta 30h teleprestakuntza)

NORENTZAT

Aginte-lerroko funtzioak dituzten pertsonak, beren eguneroko kudeaketan laneko segurtasun eta osasuneko alderdiak txertatu behar dituztenak eta, gainera, [LAPean oinarritako mailako funtzioak](#) edo [prebentzio-baliabidekoak](#) egiten dituztenak.

SARRERA

Prozesuen eta pertsona-taldeen kudeaketan ardura duten pertsonak, eguneroko jardunean, **eragin positiboa** izan dezakete kolaboratzaileen segurtasunean eta osasunean. Pertsonen segurtasunean eta osasunean eragina duten **jarduerak edo erabakiak identifikatzea eta haietaz jabetzea**, eta arriskuak saihesteko edo murrizteko zer egin dezaketen jakitea, ezinbesteko urratsak dira eragin positibo hori lortzeko. Eguneroko kudeaketan **segurtasuna eta osasuna integratzea** deitzen diegu jardura horiei.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, lan-arriskuen [prebentzioan oinarritako mailako funtzioak](#) edo [prebentzio-baliabidekoak](#) egin behar dituzte. Aginte-lerroko pertsonak funtzio horietakoren bat betetzen badu, 50 orduko prestakuntza behar du.

HELBURUAK

Helburua da aginte-lerroko pertsonak kontzientziatzea eta sensibilizatzea, erakundeak lan-arriskuen prebentzioaren arloan dituen beharrak eguneroko kudeaketan txertatzeko beharraz.

- Bere kudeaketan segurtasuna eta osasuna sartzearen garrantziak jabetzea, kolaboratzaileen eta hirugarren pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzeko.
- Bere eguneroko laneko hainbat egoeratan bere kudeaketan segurtasun- eta osasun-alderdiak txertatzeko beharra identifikatzea.
- Enpresan duten eginkizunari lotutako prebentzio-jarduerak ezagutzea eta beraiek betetzeko aukerak aztertzea.
- Nork bere burua zaintzeko eta ingurukoen zaintzaren beharraz sensibilizatzea.
- **Ikastaroan parte hartzen dutenak Prebentzio Baliabide gisa jarduteko gaitzea** (LPRL, 32. art. bis), prebentzio-jarduerak betetzen diren edo ez zaintzeko.

PROGRAMA

Ikastaroaren programak 39/1997 Errege Dekretuaren [IV. eranskinean](#) eta Metalaren IV. Hitzarmenaren II. eranskinean ezarritako edukiak biltzen ditu, eta honela banatuko da:

- Sarrera
- Arriskuaren pertzepzioa
- Laneko istripuak eta gaixotasunak murrizteko jardura-guneak
 - Lan baldintzak
 - Sistemak eta prozesuak
 - Pertsonak.
- Nire eragina pertsonen segurtasunean eta osasunean
 - Komunikazioa eta parte-hartzea
 - Harrera eta trebakuntza plana
 - Osasunaren kontrola: pertsona sentikorren kudeaketa.
 - Jardueren koordinazioa
- Nire eragina lan-baldintzen kudeaketa eraginkorrean
 - Arriskuen ebaluazioa eta kontrola
 - Prebentzio eta zuzenketa ekintzak
 - Aldaketaren kudeaketa: erosketak

- Kudeaketarako zenbait tresna eta nire eginbeharra:
 - Gorabehera eta istripuen kudeaketa eta ikerketa
 - Segurtasun ikuskapenak.

Ariketa praktikoak eta azken ebaluazioko galdetegia. Aurrez aurreko saioetako eduki horiez gain, Prebentzio Zerbitzuen EDn ezarritako kontzeptuak eta gaiak landuko dira on line.

METODOLOGIA eta MODALITATEA

Parte presentziala: Prestakuntza presentziala da, 20 ordukoa, eta 5 orduko 4 jardunalditan egiten da. Trebakuntza teoriko-praktikoa izango da, eta aginte-lerroan lan egiten duen pertsona baten egunerokoan oinarrituko da. Segurtasunaren eta osasunaren arloan esku-hartzea erabakigarria den hainbat egoera landuko dira. Saioen artean, ikastaroan ikasitakoa praktikara eramatea proposatuko zaie bertaratutakoei. Saio bakoitzean esperientzien bateratze-lana egingo da. Ikastaroa gaingitu dela joko da, baldin eta ikasleak: Teletrebakuntzako zatia: Ikasleak Osartenen gela birtual ean sartzeko aukera izango du, hasierako datatik presta kuntza amaitzen den egunera arte.

Ikastaroa gaingidutzat joko da baldin eta ikasleak:

- Aurrez aurreko saio guztietara joan da (%100)
- Online ikastaroaren eduki guztien %100 egin du. Ikaskuntza ebaluatzeako kontrolak egitea.
- Aurrez aurreko ezagutza-proba gaingitzea.
- Teleprestakuntza gaingitu behar da.



DATAK - 2025

		Ordutegia
Zati presentziala	Azaroak 12, 19, 26 eta	8:30 - 13:30
	Abenduak 10	
Teleprestakuntza	Azaroaren 12tik Abenduaren 15era	

IRAUPENA 50 ordu

LEKUA OSARTEN KOOP. E, Jose Maria Arizmendiarieta, 1. Arrasate (Gipuzkoa) 20500 [Mapa](#)

MATRIKULA 410 € + BEZ

OHARRA: Ikastaroa hasi aurretik fakturatuko da, egingo dela baieztatzen den unean, hain zuzen. Ikastaroa osorik egiten ez bada, edo ikastaroa hasi baino 2 lanegun lehenago inskripzioa bertan behera uzten ez bada, zenbatekoa ez da itzuliko.

IZEN EMATEAK

<https://forms.office.com/e/z41zeDQEhA>